


X

# PHEDRO'ren ALEGIAK

II



Etxebarria'tar Juan Anjel'ek  
LATERATIK EUSKERATUTA

## **PHEDRO'ren ALEGIAK**

II

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek  
euskeratuta

---

S . Anton'go Katekesia  
Euskal-argitalpenak

**AGERTUTAKO IDAZTIAK:**

- 1 — Phedro'ren Alegiak I
- 2 — Martial'en Ziri-Bertsoak
- 3 — Phedro'ren Alegiak II

Liezama'ko

Aiatza'tar Karmele'ri:

Ixit-ixillik zabiltz, geldiro.

Kanpotik otza emoten dozu.

Barnean, barriz, ba-dozu giro:

Huskalerria utan daukazu.

## BARRIRO BE...

Barriro be alegiekin? Gure egunetako gorabera ta buruauste ikaragarriak ikusita, lengo denporetako gauzeten murgil? Besterik bear dogu gaurko euskaldunak, gaur-gaurko irakurgaiak.

Arrazoia da.

Alegiok euskeratuta dagozan ezkero, ez dira alde batera itxitekoak. Zer egingo? Ara, idazkiok ba-dabe oraindik mamiña gaurko lurtarrentzat-eta, egizuz urrats batzuk atzera, orduko urteetara; sar zaitez buru-belarri giro aretan. Aztertu ondo alegi onein guna ta zatoz gaurko bizitzaren zurrubillo-erdira. Euren esanetan idoroko dozu askotan euskaia, eguneroko olatuen artean buru-zut ibiltzeko. Ta nai ba'dozu, eskatu barriro alegiak, emongo yatzuz-eta.

Irakurri astiro. Lengoak baiño laburragoak dira geienak. Areik baizen mamitsuak, alan be. Zeatz aztertu ezkero, auxe oartzen dogu: ez dabiltz ziri-bertsoen tankera ta jo-mugatik urrun. Baiña, alde andia dago bien artean. Ziri-bertsoak notin ikusgarri ta oargarri bat azalduaz, irakurleak ari adi-adi ipinten dabez. Ta esaten bide dautse: ara nolakoa dan urlia. Ori galdua dago. Kontuz, bere akatsetan iñoi zausi ez zaitezen. Ipuiñok, osteia, ba-dirudi, irakurleak gogoan artuta, notin edo abere bat eredutzat arturik esaten dautsela irakurleai: ara nolakoak izaten zarien batzutan. Zentzatu zaiteze berandu baiño len. Ta ez zaiteze geiago zausi lengo akatsetan. Dana umore onez eta baita mingostasun apur batez be.

Nire aldetik,urrengorarte.

Euskeratzailleak.

## LENENGO IDAZTIA

## FABULA IV

**Canis per fluvium carnem fere  
Avidum sua saepe deludit aviditas**

Amittit merito proprium, qui alienum adipet,  
Canis per flumen carnem dum ferret natans,  
lympharum in speculo vidi simulacrum suum,  
aliamque praedam ab alio cane ferri putans  
eripere voluit; verum decepta aviditas  
et, quem tenebat ore, dimisit cibum,  
nec, quem petebat, potuit adeo adtingere.

### IV - GARREN ALEGIA

**Ibaian igerika aragla eroan txakurra.  
On-gosea askotan bere zaleak ondatuta.**

Iñorena nai  
dauana arrazoiz  
geratuten da  
bereaz murriz.  
Beste txakur bat  
dago or janari  
ta guzti; indarrez  
niretuko ori.

Ba-joian txakur  
bat bein ibaian  
iger, aragi-  
zatia agoan.  
Aren irritsa,  
barriz, alperrik:  
eukana bota  
eban agotik.

Ur gardenaren  
leiarran bere  
irudia ikus  
ta berak uste:  
Eta bestea,  
beretu gura  
ebana, ezin  
atzi, gaiñera

## FABULA XXIV

### Rana rupta et bos Potentes ne tentes aemulari

Inops, potentem dum vult imitari, perit.  
 In prato quondam rana conspexit bovem  
 et tacta invidia tantae magnitudinis  
 rugosam inflavit pellem; tum natos suos  
 interrogavit, an bove eset latior.  
 Illi negarunt. Rursus intendit cutem  
 maiore nisu et simili quaequivit modo,  
 quis maior eset. Illi dixerunt bovem.  
 Novissime indignata, dum vult validius  
 inflare sese, rupto iacuit corpore.

### XXIV - GARREN ALEGIA

#### Igel lertua ta idia Ez ibilli andien itxurak egiten.

Txikia galdu oi da andi-zalekeriz.  
 Igel batek idia ikusi zelaian.  
 Alako anditasun zala-ta inartziz,  
 bere azal tximurra puztu egin eban.  
 Ta ba-diñotse umeai ia idia baino  
 andiago ete zan. Areik, barriz, ezetz.  
 Barriko be azala edatu, oindiño  
 indar andiagoaz, eta bigarrenez:  
 Andiago nor zanentz. Eta areik ostera:  
 Idia. Barriko be, asarrez, azala  
 gogorkiago puztu gura ta lurrera  
 jausten da, gorputza ler eginda dauala.

## FABULA XXV

### Canes et corcodili Rete ne tendas accipitri

Consilia qui dant prava cautis hominibus,  
 et perdunt operam et deridentur turpiter.

Canes currentes bibere in Nilo flumine,  
 a corcodilis ne rapiantur, traditum est.  
 Igitur cum currens bibere coepisset canis,  
 sic corcodilus: "Quamlibet lambe otio;  
 noli vereri," At ille: "Facerem mehercule,  
 nisi esse scirem carnis te cupidum meae."

### XXV - GARREN ALEGIA

#### Txakurrak eta ibai-muskerrak.

#### Ez bota sarerik gabiraiari.

Gizon zuurrai aolku txarrak  
 damotsezanak lan alper  
 egiten dabe. Ta irri ta iseka  
 jasoten dabez alaber.

Txakurrak Nilo-ibaian arin  
 dabilzala ei dedate,  
 ibai-muskerren ortzetan jausi  
 ez egiteko olantxe.

Txakur bat asi zan bein aringa  
 edaten ta ibai-muskerra  
 onela mintzo: "Mizkatu nasai  
 nai aiña, kendu bildurra"

Txakurrak olan erantzun eutson:  
 "Ala Jainkoal Bai, pozez  
 edango neunke, zu ez ba'zengoz  
 nire aragi-irritsez."

Ibai muskerrai buruz ara zer idatzi dabent euskal-idazleak, 1885-garren urtean argitaratutako "Mayatz-illeraco Berba-aldiako" idaztian Juan Jose Mogel ek, gizon askoi azken orduan egiten dabezan negarrak benetakoak ala badazezpadakoak diran argitzeko, adibide auxe emoten dau: "Irakurten dogu kokotrilua esaten jakon pistija izugarri ur naiz liorrian bardin ibilten dana, dala gizonaren aragiaren txito zalia. Artu oi ditu sarri, ta beingo baten illik jaten deute aragi guztia. Guenian imiñirrik, gizonaren kalaberria bera aurreko besuen artian, egiten ditu alarau ta ojorijo andiak kalaberri begira. Baña zegaitik? Il dabelako gizona? Ze gitxi. Bai, ez daukalako zer janik geiago kalaberria" (7-garren berbaldia, 59-garren orrialdean.) Orra bere itz berberak, gaurko idazkeraz, izkietan, jarriak. Gure egunetako euskaldun garbiak kalaberria barik buru-azur esango dabe. Zeuk ikusi ta... ikasi.

## IRUGARREN IDAZTIA

## FABULA XIX

### Aesopus respondet garrulo Multi homines nomine, non re

Aesopus domino solus cum esset familia,  
parare cenam iussus est maturius  
Ignem ergo quaerens aliquot lustravit domus,  
tandemque invenit, ubi lucernam accenderet.

Tum circum eunti fuerat quod iter longius,  
effecit brevius: namque recta per forum  
coepit redire. Et quidam e turba garrulus:  
“Aesope, medio sole quid cum lumine?“

“Hominem“ inquit, “quaero“, et abiit festinans domum.  
Hoc si molestus ille ad animum rettulit,  
sensit profecto se hominem non visum seni,  
intempestive qui occupato adluserit.

## XIX - GARREN ALEGIA

### Esopo'k berba-lapikoari erantzun. Asko gizon dira izenaz eta ez izanaz.

Esopo'ri, etxeko morroi bakar zala,  
aparia goizago gertatzeko esan  
eutsoen ta ainbat etxe su-billa araturik,  
argontzia nun biztu arki, azkenean.

Ta inguruka egin bidea, arinago  
ibil eban arantza; azokatik zuzen  
asi zan etxerantzta. Ta lagunarteko  
itz-ontzi batek: “Euzki-gingan argiz emen?“

“Gizon bat idoroten nabil“, eta arin  
bai arin abiatu zan etxe-aldera.

Mutiri ark erantzun au burutan artu  
ba'eban, auxe igarri bear eutson, zera:

Lanpetuta ebillen erritar bateri  
jolaserako gogoz ondoratu yakon  
garai-ezean-eta, ez bide yakola  
iruditu agure ari oso gizon.

LAUGARREN IDAZTIA

## F A B U L A I

### Asinus et Galli

Miserrimus, qui in vita miser, post mortem miserior.

Qui natus est infelix, non vitam modo  
tristem decurrit, verum post obitum quoque  
persequitur illum dura fati miseria.  
Galli Cybebes circum in quaestus ducere  
asinum solebant baiulanem sarcinas.  
Is cum labore et plagis esset mortuus,  
detracta pelle sibi fecerunt tympana.  
Rogati mox a quodam, delicio suo  
quidnam fecissent, hoc locuti sunt modo;  
“Putabat se post mortem securum fore;  
ecce aliae plagae congeruntur mortuo.”

## L E N E N G O A L E G I A

### Astoa ta Galiarrak

Bizitzan zoritzarrekooa ta eriotza-ondoan  
zoritzarragokoa dana, ori bai errukarri!

Jaiotzez zori-txarreko danak  
bizi illuna daroa ta il  
ta gero patu gaizto-gogorra  
oraindik bere atzetik dabil.

Zibebes aren apaizak asto  
bat eroaten eben zamari,  
eskabideetan ebiltzanean.  
Neke-zigorrez il zan asto ori.

Narrua kendu ta eurentzako  
arratzak egin ebezan. Orren  
ondoren batek iñotsen ia  
kutun aregaz zer egin eben.

Ta areik erantzun: “Beraren ustez  
nasai bear zun, il ezketiño;  
baiña, ara zer jazo dan: il ta  
neke barriak jasan oindiño.”

### FABULA III

**De vulpe et uva**

**Spernit superbus, quae nequit assequi**

Fame coacta vulpes alta in vinea  
 uvam adpetebat summis saliens viribus;  
 quam tangere ut non potuit, discedens ait:  
 "Nondum matura est; nolo acerbam sumere."  
 Qui, facere quae non possunt, verbis elevant,  
 adscribere hoc debebunt exemplum sibi.

### III - GARREN ALEGIA

**Azeria ta matsa.**

**Arroarentzat, jadetsi-eziña, ezezgarri,**

Goseak alan beartuta asi  
 zan azeri bat ekin da ekin  
 matsare garai baten jauzika.  
 Alan be, matsa oratu ezin.

Ikutu bere ez; andik joan ta,  
 "Eldu bagarik da, bere kautan,  
 oraindiño; ez noa jatera  
 gordin-gordinik dan bitartean"

Zeozer egin gura ta, lortu  
 ezin'ba'dabe, berbaz gaitzetsi  
 oi dabenak, ba-dabe emengo  
 adibidea nori erantsi.

### FABULA VIII

**Serpens ad fabrum ferrarium**

**Maledico maledicens peius audiet**

Mordaciorem qui improbo dente adpetit,  
 hoc argumento se describi sentiat.

In officinam fabri venit vipera.

Haec cum temptaret, si qua res esset cibo,  
 limam momordit Illa contra contumax:  
 "Quid me?", inquit, "stulta, dente captas laedere,  
 omne adsuevi ferrum quae conrodere?"

### VIII - GARREN ALEGIA

**Sugea errementariarenean.**

**Esalea entzulea.**

Latzago danari usiki gaiztoa  
 egiten dautsonak, jakin begi bera  
 azalduten dala idazgai onetan.  
 Ziraun bat sartu zan sugille-olera.

Jateko billa ası ta karraska baten  
 grausk egin eban. Ta ark gogorki: "Lelo ori,  
 zer dala-ta koska egin nai daustazu,  
 burdinak orzkatzen ditudan oneri?"

## FABULA XIX

**Serpens. Misericordia nocivâ**

**Malo qui bene facit, peiorem facit**

Qui fert malis auxilium, post tempus dolet.  
Gelu rigentem quidam colubram sustulit  
sinuque fovit, contra se ipse misericors;  
namque ut refecta est, necuit hominem protinus.  
Hanc alia cum rogaret causam facinoris,  
respondit: "Ne quis discat prodesse inprobis."

## XIX - GARREN ALEGIA

**Sugea. Erruki kaltegarria.**

**Gaiztoari mesede egiten dautsonak**  
**gaiztoago egiten dau.**

Gaiztoai laguntza emoten dautsena  
gero damutu oi da. Izotzak gogor  
egoan suge bat batek jaso eban  
kolkopera, bere kaltez errukior.

Pizkortu zan, bada, sugea ta gure  
gizona il beingoan. Zergaitik egian  
ori itandu eutson bateri: "Gaiztoai  
on egiten iñork ikasi ez daian."

## FABULA XXIII

**Mons parturiens**

**Magna ne iactes, sed praestes**

Mons parturibat, gemitus inmane ciens,  
eratque in terris maxima exspectatio.  
At ille murem peperit. Hoc scriptum est tibi,  
qui, magna cum minaris, extricas nihil.

## XXIII - GARREN ALEGIA

**Mendia aurdun.**

**Gauza andiak aldarrikatu bearrean, egizuz.**

Mendi bat aur eiteko zan oiu anditan.  
Lurrean egundoko itxaro bi ia.  
Ta ara sagu bat erdi. Gauz asko agindu  
ta ezer ez dagizun ori: or ziria!

GEIGARRIA

## FABULA XX

**Ursus esuríens**

**Famem acuere animantibus ingenium**

Si quando in silvis urso desunt copiae,  
scopulosum ad litus currit et prendens petram  
pilosa crura sensim demittit vado;  
quorum inter villos cancri simul ut haeserunt,  
in terram arripiens excutit praedam maris  
escaeque fruitur passim collecta vafer.  
Ergo etiam stultis acuit ingenium fames.

## XX - GARREN ALEGIA

**Artza gosez.**

**Goseak adimena zorrozen dautse bizidunai.**

Iñoz artzak basoan zer janik ez ba'dau,  
itsaso-bazterrera joaten da ta an,  
atxari oratuta, astiro-astiro  
bere anka uletsuak sartzen ditu uretan.

Zanguruak uleiak itsats baizen laster  
legorrean astintzen dau itsas-bilkia.  
Ta an-emengo jakiaz gozatzen da maltzur.  
Leloak bere, gosez, asmamen ariña.

# Idazti onetako latera-euskerazko itzen billabidea

## A

a,-ab,... tik; . . gandik;... k  
abeo, is, ire, alde egin.  
accendo, is, ere, biztu.  
accipiter, tris, gabirai.  
acerbus, a, um, mingots.  
acuo, is, ere, zorrozu.  
ad,... an;... ra;... gana;... ondoan.  
adeo, ain, ainbesteraiño.  
adludo, is, ere, adarra jo.  
adpeto, is, ere, irrikatu; lortu nai.  
adscribo, is, ere, ezarri.  
adsuesco, is, ere, oitu.  
adtingo, is, ere, ikutu; esku-  
ratu.  
aemulor, aris, ari, antzekotu.  
Aesopus, i, Esopo.  
aio, ais, esan.  
alienus, a, um, inoren.  
aliquot, batzuk; ainbat.  
alius, a, ud, bat; beste bat.  
altus, a, um, garai; sakon.  
amitto, is, ere, galdu.  
an, ia...  
animans, ntis, bizidun.

animus, i, gogo.  
argumentum, i, arrazoibide;  
idazgai.  
arripi, is, ere, indarrez art u  
asinus, i, asto.  
assequor, eris, qui, jadetsi.  
at, baiña.  
audio, is, ire, entzun.  
auxilium, ii, laguntza.  
aviditas, atis, irrits.  
avidus, a, um, on-gose, zale.

## B

baiulo, as, are, zama bat eroan  
bene, ondo.  
bibo, is, ere, edan.  
bos, bovis, idi.  
brevis, e, labur.

## C

cancer, cancri, txangurru.  
canis, is, txakur.  
capto, as, are, asmoa izan.  
causa, ae, arrazoi, zergaiti.  
cautus, a, um, zur.  
cena, ae, apari.  
cibus, i, jateko; janari.

cio, is, ire, eragin.  
circum, ...inguruau; inguruka.  
Cybebes, Zibebes.  
coepi, coepisse, asi.  
cogo, is, ere, beartu; bultzatu;  
zirikatu.  
colubra, ae, suge.  
colligo, is, ere, batu; bildu.  
congero, is, ere, pillotu.  
conrodo, is, ere, orzkatu.  
consilium, ii, aolku; asmo;  
erabagi.  
conspicio, is, ere, ikusi; be-  
giztatu.  
contra, aldi; ...aurka.  
contumax, acis, setatsu; setati.  
copia, ae, eskuarte.  
corcodilus, i, ibai-musker.  
corpus, oris, gorputz.  
crus, cruris, belaun; anka.  
cum, ...agaz; ..nean; ...rik.  
cupidus, a, um, zale.  
curro, is, ere, arin, laster egin.  
cutis, is, azal, narru.

## D

de, ...tik; ...gandik; ...tzaz.  
debeo, es, ere, bear izan.  
decipio, is, ere, atzipetu.  
decurro, is, ere, joan; d. vi-  
tam, bizitza igaro.

delicium, ii, atsegin; kutun.  
deludo, is, ere, ziria sartu.  
demitto, is, ere, itxi; azkatu.  
dens, ntis, agin.  
derideo, es, ere, iseka egin.  
describo, is, ere, azaldu; idaz-  
kiz azaldu.  
desum, dees, deesse, peitu;  
uts egin.  
detraho, is, ere, atara, kendu,  
beztu.  
dico, is, ere, esan.  
dimitto, is, ere, azkatu; az-  
ketsi; bialdu.  
discedo, is, ere, joan, anka  
egin.  
disco, is, ere, ikasi.  
do, das, dare, emon.  
doleo, es, ere, mindu; damutu  
dominus, i, jaun; jaube.  
domus, us, etxe.  
duco, is, ere, eroan;... ratu.  
dum, ...bitartean.  
durus, a, um, gogor.

## E

ecce, orra.  
efficio, is, ere, egin; ...eragin-  
ego, ni.  
elevo, as, are, jaso; beeratu,  
gitxitzat jo.  
eo, is, ire, joan.

ergo, beraz; orretara ezkerro.  
eripio, is, ere, indarrez kendu.  
esca, ae, janari.  
esurio, is, ire, gosetu  
et, eta, ta.  
etiam, bere bai; ...ere; baita  
...ere.  
executio, is, ere, astindu.  
exemplum, i, adibide.  
expectatio, onis, itxaro, igu-  
rimen.  
extrico, as, are, atara.

## F

faber, bri, beargin; egille.  
facinus, oris, egipen; egintzar.  
facio, is, ere, egin.  
fames, is, gose.  
familia, ae, sendi.  
fatum, i, zori; patu.  
fero, fers, ferre, eroan; emon;  
jasan.  
ferrarius ii, errementari.  
ferrum, i, burdin.  
festinans, ntis, arin doana.  
flumen, inis, ibai.  
fluvius, ii, erreka.  
forum, i, azoka.  
foveo, es, fovere, berotu.  
fruor, eris, frui, atsegindu;  
...tzaz (gaz) gozatu.

## G

gallus, a, um, galiar.  
garrulus, a, um, berba-lapiko.  
gelu, us, izotz; lei.  
gemitus, us, oiu; ulu.

## H

haereo, es, ere, itsatsi.  
hic, haec, hoc, au.  
homo, inis, gizon.

## I

iaceo, es, ere, etzun.  
iacto, as, are, jaurti.  
igitur, beraz; ari ontara.  
ignis, is, su.  
ille, illa, illud, a.  
in, ...an; ...aurka.  
indigno, as, are, asarratu.  
infelix, icis, zoritzarreko.  
inflo, as, are, puztu.  
ingenium, ii, asmamen; adi-  
men.  
inmanis, e, itzal.  
inops, opis, beartsu.  
inprobus, a, um, gaizto; gaitz.  
inquam, is, esan.  
intempestive, garai-ezean.  
intendo, is, ere, leiatu.

inter, ...arteau.

interrogo, as, are, itandu.

invenio, is, ire, aurkitu.

invidia, ae, iñartzi.

ipse, ipsa, ipsum, berbera;  
...a bera.

is, ea, id, ori.

iter, itineris, bide; ibillaldi.

iubeo, es, ere, agindu.

## L

labor, oris, lan; neke.  
laedo, is, ere, mindu, iraindu.  
lambo, is, ere, mizkatu.  
latus, a, um, zabal.  
lima, ae, karraska.  
litus, oris, itsasalde.  
longus, a, um, luze.  
loquor, eris, i, itz egin.  
lucerna, ae, argi-ontzi.  
lumen, inis, argi.  
lustro, as, are, garbitu; aratu.  
lympha, ae, ur garden; leiar.

## M

magnitudo, inis, anditasun.  
magnus, a, um, andi.  
maiор, us, andiago.  
maledico, is, ere, gaizki esan.  
maledicu, a, um, gaizki-esale.

malus, a, um, txar.

mare, is, itsaso.

maturus, a, um, eldua; arin;  
bizkor.

maximus, a, um, andien; an-  
di-andi.

medius, a, um, erdi; erdiko.

mehercule, ala Jainkoal

merito, arrazoiez; zuzen.

meus, a, um, nire.

minor, us, txikiago.

miser, era, erum, zoritzarre-  
ko; errukarri.

miseria, ae, zoritzar; txiro-  
tasun.

misericordia, ae, erruki.

misericors, rdis, errukior.

modo, bakarrik. (non) ez ezik.

modus, i, era; modu

molestus, a, um, nekagarri.  
mons, montis, mendi.

mordax, acis, zorrotz; minkor.

mordeo, es, ere, usiki egin.

morigor, eris, mori, il.

mors, mortis, eriotza.

mortuus, a, um, ildako.

mox, laster; gero.

multus, a, um, asko; andi.

mus, muris, sagu.

## N

nam, bada.

nascor, eris, nasci, jaio.

nato, as, are, igerikatu.  
natus, i, seme; ume.  
ne, ez; ez ...n.  
nec, ta ez; ezta ...ere.  
neco, as, are, il; zauritu.  
nego, as, are, ukatu.  
nequeo, is, ezin.  
nihil, ezer bere ez.  
Nilus, i, Nilo.  
nisi, ...ezik; ez ba...  
nisus, us, alegin; indarkada.  
nocivus, a, um, kaltegarri.  
nolo, non vis, nolle, gura ez  
izan.  
nomen, inis, izen.  
nondum, oraindik ez.  
novissime, azkenik; oraintsu.

## O

obitus, us, eriotza.  
occupo, as, are, arazotu.  
officina, ae, ola; lan-ola.  
omnis, e, guzti.  
opus, eris, lan; ekintza.  
os, oris, arpegi; musu.  
otium, ii, astiune.

## P

pario, is, ere, argitara atara;  
sortu; erdi izan.  
paro, as, are, gertatu; atondu.  
parturio, is, ire, erdi izan; aur  
egin.

passim, an-emen (ka).  
peior, peius, txarrago; txar  
toago.  
pellis, is, azal; narru.  
per, ...n zear; ...bidez.  
perdo, is, ere, galdu; alperrik  
galdu; ondatu.  
pereo, is, ire, suntsitu; galdu.  
persequo, eris, qui, jazarri.  
peto, is, ere, eskatu; billatu.  
petra, ae, arri; atx.  
pilosus, a, um, uletsu.  
plaga, ae, zigor; zauri.  
possum, potes, posse, al izan.  
post, ondoren; ...ondoan.  
potens, ntis, indartsu; altsu.  
praeda; ae, arrapakin.  
praesto, as, are, zuzendu.  
pratum, i, larra; zelai.  
pravus, a, um, gaizto.  
prendo, is, ere, oratu.  
profecto, benetan; egiz.  
proprius, a, um, norberaren.  
prosum, prodes, prodesse,  
mesede egin.  
protinus, aurrerantza; etengabe  
puto, as, are, uste izan,  
...tzat jo.

## Q

qua, andik; ...n bidetik.  
quaero, is, ere, billatu; gal  
detu.  
quaestus, us, eskabide:

quamlibet, zenbat gura; nai  
beste.  
quando, ...nean; ...n unean  
(aldian).  
-que, eta,  
qui, quae, quod, ...na; ...n a  
(au-ori).  
quid, zergaitik?  
quidam, quaedam, quoddam,  
bat; urlia.  
quidnam, quaenam, quod  
nam, zein?  
quondam, bein; beiñola.  
quoque, bere bai.

## R

rana, ae, igel.  
rapio, is, ere, arrapatu.  
recta, zuzen (ki); artez.  
redeo, is, ire, itzuli.  
refero, feis, referre, itzuli.  
reficio, is, ere, konpondu; osa  
tu; xuxpertu.  
res, rei, gauza; ...gai.  
respondeo, es, ere, erantzun.  
rete, is, sare.  
rigeo, es, ere, gogortu; gogor  
gelditu.  
rogo, as, are, arren egin; otoi  
egin; eskatu.  
rugosus, a, um, tximur.  
rumpo, is, ere, apurtu; lertu.  
rursus, ostera be.

## S

saepe, sarri.  
salio, is, ire, jauzi egin.  
sarcina, ae, zama.  
scopulosus, a, um, arkaitzu.  
scribo, is, ere, idatzi.  
se: bere; bere burua.  
securus, a, um, ziur.  
sed: alabaiña; baiña.  
senex, senis, agure; zar.  
sensim, apurka.  
sentio, is, ire, nabaitu; igarri.  
serpens, ntis, suge.  
sese, bere; norberaren burua.  
si: ba' ..., ezkerro.  
sic, onelan; alan.  
silva, ae, baso; oian.  
similis, e, antzeko.  
simulacrum, i, irudi.  
sinus, us, kolko; bularpe.  
sol, solis, eguzki.  
soleo, es, ere: oitu; oitura  
izan.  
solus, a, um, bakar; bakarrik.  
speculum, i, ispilla; leiar.  
sperno, is, ere, ezetsi; erde  
ñatu.  
stultus, a, um, lelo; burubako;  
ganorabako.  
superbus, a, um, arro; arro  
putz.

suffero, fers, ferre, artu; ken-  
du; gogorrear eroan.  
sum, es, esse, izan.  
sumo, is, ere, artu; norbera-  
rentzat artu.  
suus, a, um, bere; norbera-  
rena.

### T

tandem, azkenean; gero ta ge-  
ro be.  
tango, is, ere, ikutu.  
tantus a, um, aibeste: (ko).  
tempo, as, are, zirikatu;  
saiatu.  
tempus, oris, aldi.  
tendo, is, ere, ...ra jo; zu-  
zendu.  
teneo, es, ere, euki; eutsi;  
oratu; (eskuan).  
tentu, as, are, zirikatu; saiatu.  
terra, ae, lur.  
trado, is, ere, ...ra (ari-ai)  
emon; itzez zabaldu.  
tristis, e, itun.  
tu, zu.  
tum, orduan.  
turba, ae, ozte.

turpiter, lotsagarriro.  
tympanum, i, arratz.

### U

ubi, nun; ...nean; ...n lekuau.  
ursus, i, artz.  
ut, ...teko; ...n; nean; ...ta.  
uva, ae, mats.

### V

vadum, i, urme; atx-arri.  
vafer, fra, frum, maltzur.  
validius, gogorrako.  
venio, is, ire, etorri; eldu.  
verbum, i, itz.  
vereor, eris, eri, bildurra izan;  
lotsa izan; bildurrez egon.  
verum, baiña; alan be.  
video, es, ere, ikusi.  
videor, eris, eri, iruditu.  
villus, i, ule.  
vinea, ae, matsare; masti.  
vipera, ae, ziraun.  
vircs, ium, indarrak.  
vita, ae, bizitza .  
volo, vis, velle, gura izan.

## LEKU-NOTIÑEN

### IZENAK

Esopo  
Niló  
Zibebes

### ORRIALDEAK

13  
9  
17